

Gipuzkoako ehun sozioekonomikoa eskualdeko ikuspegiaren ekarpenaren bidez suspertzeko programa.

III. ERANSKINA - Eskualdeko garapen estrategiko eta sozio-ekonomikorako proiektu esanguratsuak laguntzeko dirulaguntzen oinarri bereziak.

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Eskualdeko garapen sozioekonomikoa bultzatzea, eskualdeko estrategiekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunekin bat datozen proiektu garrantzitsuen bidez, ekonomia sustapenaren arloan, lurralde oreka eta kohesioa ekarriko dutenak.

ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izango dira tokiko erakundeek eratutako Gipuzkoako tokiko garapeneko eskualdeko agentziak, mankomunitateak eta beren eskualdean garapen agentziarik ez duten Gipuzkoako tokiko udalak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere diru laguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo diru laguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarre publiko edo pribatuak zabalitzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuradunak izango dira. Eskaerarekin batera aitortzen erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortzena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak izango dira eskualdeen gaitasun endogenoak sustatzeko eraldaketa estrategikoa erraztuko duten proiektuak garatzea, ekonomia, gizarte eta ingurumen lehiakortasunari dagokionez, eta gizarte, ekonomia eta lurralde garapenean eta kohesioan eragina izango dutenak.

Proiektu bakoitzaren gutxieneko kostu hautagarria 160.000 eurokoa izango da.

Ez dira diruz lagunduko arlo honetako proiektuen batengatik aurreko deialdietan finantzaketa jaso duten entitateek aurkeztutako proiektuak, salbu eta beste erakunde batzuek aurkeztutako proiektu berririk aurkezten ez bada.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

- **Barruko langileen** kostuetan gehieneko kostu hautagarria 35 €/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:



Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta x 12 x 1,25 / Urteko ordu kopurua

- **Kanpoko langileen kostuak** hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.
- **Bidaia:** Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiak dagozkienak bakarrik.
- Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien **%60** izango dira:

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

III. eranskineko dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko irailaren 17an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- **Jarduerak hasteko epea:** Dirulaguntzen xede diren jarduketak dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, **urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2022ko ekainaren 30ean.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2022ko uztailaren 30ean.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

“Gipuzkoako ehun sozioekonomikoa eskualdeko ikuspegiaren ekarpenaren bidez suspertzeko programa”ren **2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia** (2021ko uztailaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 149 zk. 2021eko abuztuaren 6an](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak>

- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENEN ZERBITZUA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Inguruneke Departamentua

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus